

TILlren KALITATE POLITIKA

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak duen Kalitate Politikak bere PROPOSITOAn du iturburua.

Horrela dio gure Propositoaren atal batek:

*“Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan, **Lanbide Heziketako ikastetxe integratu** eta itundua, gizartearen eta enpresen beharrei arlo pertsonalean, sozialean eta profesionalean langile trebeak prestatuz erantzuten diegu. [...]. Ikasleen aniztasunari erantzun nahi dion espazio **inklusiboa** izan nahi dugu, pertsona bakoitzaren **bizi-ibilbidean eta prestakuntza-ibilbidean** garapen integrala bultzatuz”.*

Eta, era berean, horrela aipatzen da:

*“Guk, **eraldaketa digital estrategiko eta jasangarria** bultzatzen duen **zentro adimenduna** garen aldetik, **konpromisoa hartzen dugu hezkuntza-bikaintasunarekin**, Euskaliten Urrezko A aitortenak bermatua, **eta kalitate-estandarrek** betez (ISO 9001, ISO14001, ISO45001 eta ISO27001). Horrek **etengabeko hobekuntzarekin eta berrikuntzarekin dugun konpromisoa** erakusten du. Gipuzkoan erreferente gara eta gure jardura Euskal Herrian, Estatuan eta Europan proiektatzen dugu [...].*

Gure PROPOSITOA estrategiarekin batera berrikusten da eta TILlko lider guztiek parte hartzen dute prozesu honetan. Gure propositotik gure Estrategia ere sortzen da, 4-5 urteetako Plan Estrategiko batean gauzatzen dena. Estrategia hau urtero desplegatzen da Kudeaketa Planaren bitartez, urtean hiritan ebaluatzen da, eta ikasturte amaieran Zuzendaritza Taldeak berrikusketa egiten dio. Aldi berean, Kudeaketa Plana TILlren **Kudeaketa Sistema Integralak** dituen prozesuen bitartez burutuko da. Azken finean, prozesuak dira gure Estrategiak dituen helburuak beteko direla ziurtatzen duten arduradun nagusiak.

Data: 2025 urria Berrikusketa zbkia: 6	Zuzendaritza taldea: Ana Monge
---	--------------------------------